



El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.

Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

Andoni Ortuzar

2024.6.5 Gernikako Batzar Etxea

Euskal herritarrontzat, euskaldunontzat, Gernikak esanahi handia dauka, esanahi ugari ditu. Haritz zaharraren gerizpean, mendeetan zehar, gure arbasoak batzartu egiten ziren demokrazia gauzatzeko. Horregatik, toki hau burujabetasunaren sinbolo da, elkar ulertzearena, askatasunarena.

Gernika, era berean, bakearen alegoria da. Basakeriak eragiten duen sufrimenduaren eta, aldi berean, sufrimendu horretatik altxatzearen sinboloa. Eta gaur hartzen gaituen haritz honek sinbolizatzen du Herri baten borondatea, Euskadirena, harmoniaz, oparotasunez eta justizia sozialarekin bizi nahi duen herriarena, munduko besteekin aliantzan, berdinetik berdinerara. Elkarbizitza nahi dugu, elkarren arteko harremana. Bakoitza bere nortasunarekin, bakoitza bere kulturarekin, errespetuz eta lankidetzan oinarrituta. Bakoitzak bere ahots propioarekin eta denok bat eginik.

Mundu horri begiratzen diogu orain, babesa ematen digun Europari, bere baitan landu nahi dugu gure etorkizuna.

Europaren lehen urratsetatik, euskal herritarrok europar proiektuarekin bat egin dugu, gure etorkizuna gure inguruko herrieekin partekatzeke helburuarekin. Elkarren interesak defendatuz eta etorkizunera begira aurrera egiten lagunduko diguten harremanak landuz. Europari begiratzen diogu Europa garelako. Nazio komunitate bat garen aldetik, han daukagu leku bat. 1918. urtean aldarrikatu genuen, Lehen Mundu Gerraren amaieran Alderdi honen ordezkariak Woodrow Wilson Amerikako Estatu Batuetako presidentearen deia erantzunez Versaillesera joan zirenean Europako herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzera. 1933an ere egin genuen, Donostian, 'Euzkadi-Europa' goiburupean, gure bigarren Aberri Eguna egin genuenean. Bigarren Mundu Gerraren ondoren berretsi genuen, 1947an, Nazioarteko Lantalde Berriak izenekoan parte hartzean. Europako Mugimenduaren sorburua izan zen hura, Schuman, Monnet, De Gasperi edo Adenauerrek sortu zuten Europako Komunitatearen hasiera. Europar proiektuaren sorburuan parte hartu genuen, faxismo eta nazismoaren totalitarismotik eta lehen urratsak ematen ari zen estalinismotik ihesi nahi zuen espazio komuna zelarik. Aurrerabidea zekarren proiektua, muturreko posizioetatik urrun, Kontinentea bake iraunkorra ekarri nahi zuena mendeetako borroka eta giza sufrimenduaren ondoren.

Eraikuntza bidean zegoen Europa hartan egon zen Euzko Alderdi Jeltzalea. Ondo baino hobeto genekien, gure haragi eta odolean sufritu genuelako, fanatismo antidemokratikoak zer ondorio ekarriko zituen. Ezagutzen genituen kanpoko erasoaren aurrean nazioarteak bertan behera uztearen ondorioak ere. Horregatik, Agirrek, Landaburuk, Leizaolak, Irujok eta beste horrenbestek bat egin zuten hasieratik Europa berri bat eraikitzeke proiektuarekin.

Europa sortu zen bake iraunkorra finkatzeko proiektu gisa. Zoritxarrez, gaur egun, gatazka beliko ankerren lekuko izatea egokitu zaigu, hala nola Ukrainako inbasioak ekarri duena eta Hamásen ekintza terroristen ondoren Gazan gauzatu den masakre bidegabea. Une honetan premia dugu gure indar guztiak batzea Europan segurtasuna bermatzen lagunduko digun defentsa propioa eraikitzeke, Batasunaren ahotsa ozen eta sendo entzun dadin nazioarte osoan, armak isildu daitezzen eta bakezko denbora has dadin denontzat. Ezin gara besoak gurutzatuta geratu Batasunaren baitan adierazpen politiko batzuk erradikalizatzen ari direla ikusita. Ahulduta kanpora begira, ziurgabetasunak eta erronkak alde guztietan, gure inguruko iritzi publikoa muturreko jarrera populistetara abiatzen hasi da. Hori da Giza Eskubideen kontrako erradikaltasunerako ongarririk onena.

Horregatik, solemnitare osoz, Gernikan, askatasunen eta bakearen sinbolo den foru hiribildu honetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak ondorengo aldarrikatu nahi du:

1. Europar Batasunarekiko konpromiso irmoa deklaratzek dugu. Proiektu demokratiko, sozial eta ekonomikoki oparoa. Aberastasun, enplegu eta elkartasunaren sorburu. Integratzailea, nazio aniztasuna, lurraldeen eta kulturen aniztasuna errespetatzek dituen, mundu bidezkoago, askeago, seguruago eta baketsuagoaren defendatzaile izanik, non Giza Eskubide guztiak errespetatuko diren.

2. Inor inor baino gehiago izango ez den Europa bat aldarrikatzek dugu, denok merezi baitugu gure ideiak, erabakiak eta ekintzak errespetatzea. Herri batek ez du besteek baino duintasun handiagorik merezi. Arrazakeria arbuiatzek dugu, herri batek beste bat menderatzea, eta bakoitza bere borondate eta izaeraren arabera izateko, bizitzeko eta besteekin bizitzeko eskubidea defendatzek dugu, gure herriaren baloreekin zein beste edozein herriren baloreekin.

3. Kausa bakar bat ez dago etikaren eta Giza Eskubideen errespetuaren gainetik jar daitekeenik, absolutu etiko baitira, edozein kausaren gainetik jarri behar direnak. Horregatik, mundua astintzen duten gatazka armatuekin amaitzeko lana egingo dugu, defentsarik gabeko biztanleria zibilaren kontra erabilitako indarkeria irmotasun osoz kondenatzek dugularik.

4. Ez dago demokraziarik, ez eta justizia sozialik ere, berdintasunik gabe. Giza harremani emakume eta gizonen arteko berdintasun egoeran baino ez diegu beren balio osoa aitortzen. Aukera berdintasuna, eskubide eta betebeharren berdintasuna. Berdintasuna legearen aurrean, parte hartze aktiboan, kontziliazioan.

**Indar
Berria
Europan**
Tu voz
importa

Oihane
Agirregoitia
Martinez



5. Adierazten dugu Euskadiren ahotsa izan nahi dugula Europan. Eta, hala izanik, Autogobernua defendatuko dugu; demokrazia, askatasunak eta Giza Eskubideak sustatuko ditugu; muturreko posizioei eta populismoei, demagogiari eta epelaburkeriari bidea mozteko harresia izango gara; politika bestela egiteko molde bat praktikatuko dugu, bide ezagun eta fidagarria eginez; azken finean, bide zentrala izango gara, erakunde bakoitzeko lanari ekinez, Udal bakoitzean, Foru Aldundi bakoitzean; bide zentrala Eusko Jaurlaritzan eta Legebiltzarrean, Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan, Kongresuan eta Senatuan; bide zentrala ere Europan, Oihane Agirregoitiarekin, Europako Parlamentuan.